

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatu Kontseiluaren 16/2016 Foru dekretua, otsailaren 9koa, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duena

Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzea

Foru Administrazioan administrazio antolaketa ezartzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak du bere gain, halaxe xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuak, Autonomia erkidego osoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzko Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, eta Batzar Nagusiek onartutako erakunde araudiak.

Ahalmen hori erabiliz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua onartu zen, Arabako Foru Aldundiaren Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzkoa. Horren babesean, Diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiaren egituraren barneko sailak eta haiei dagozkien gaiak zeintzuk diren ezarri zituen uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuaren bidez.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, honako arlo hauek esleitzen zaizkio:

- Euskara politikak
- Agiritegi eta liburutegiak
- Museoa.
- Zaharberritzeak.
- Kultura Etxea
- Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena
- Argitalpenak.
- Historia, arte eta arkitektura ondarea
- Kirola
- Gazteria.
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Foru Arauaren 38., 40., 70. eta 73. artikuluetan eta horiekin zerikusia dutenetan ezartzen dira sailei oro har ematen zaizkien ahalmen eta eskuduntzak, eta esandako arlo horietan ere marko horren barruan jardungo du administrazioak.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ardura eta eskumena duen eremu materiala finkaturik, foru dekretu honek sail horren egitura ezartzen du, kontuan hartuz horren inguruan emandako txostenak eta diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoa betez.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

Xedatzen dut

I. Kapituluak

1. artikulua. Jardun eremuak

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Aldundiaren sailak eta haien jardun arloak ezarri ziren. Dekretu horren arabera Euskara, Kultura eta Kirol Sailak honako jardun eremu hauek izango ditu: euskara politikak, agiritegi eta liburutegiak, museoak, zaharberrikuntza, kultura etxea, hezkuntza sustapena eta kultura zabalkundea, argitalpenak, historia, arte eta arkitektura ondarea, kirolak, gazteria eta ordenamendu juridikoak ezartzen dituen gainontzekoak.

Era berean, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak bere gain hartuko du bere jardun eremuekin zerikusia duen beste edozein eskumen, Foru Aldundiarena izanik beste foru sail bati berariaz esleitzen ez zaiona.

2. artikulua. Egitura

Aurreko artikuluan aipatutako jardun eremuetako eginkizunak gauzatzeko, Euskara, Kultura eta Kirol Saila unitate organiko hauetan egituratzen da:

Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza; honi atxikita daude:

- a) Euskararen Foru Zerbitzua
- b) Agiritegi Zerbitzua
- c) Museo eta Arkeologia Zerbitzua
- d) Zaharberrikuntza Zerbitzua
- e) Kultura Etxeko Zerbitzua.
- f) Kultura Ekintza Zerbitzua, zeinari atxikitzen baitaio Kultur Azpiegitura Atala.
- g) Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua
- h) Kirol Zerbitzua
- i) Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

3. artikulua. Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako entitate, erakunde eta organoak

1. Hona hemen Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikita dauden erakundeak eta sozietate publikoak, bakoitza Erakundearen Erregistroan daukan identifikazio zenbakiarekin:

- 73 Gazteriaren Foru Erakundea
- 20 Santa Maria Katedrala Fundazioa
- 29 Euskararen Kontseilua.
- 32 Arabako Artium Fundazioaren Patronatua.
- 57 Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola
- 231 Arabako Foru Lurraldeko Kirol Batzordea
- 258 Alava Vive Deporte Fundazioa (ALVIDE).
- 287 Añanako Gatz Harana Fundazioa

4. artikulua. Gazteriaren Foru Erakundea

Bat etorritz Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoa eratzen duen Foru Arauan xedatutakoarekin (22/1988 Foru Araua, ekainaren 20koa), erakunde horri dagozkio Araban gazteen

prestakuntza eta sustapen osoarekin zerikusia duten mota guztietako jarduerak antolatzea, kudeatzea, sustatzea, ematea eta gauzatzea, legez finkatutako eskumen esparruaren barruan.

Erakundearen zuzendaritza organoak dira:

- Administrazio Kontseilua.
- Zuzendari / Kudeatzailea.

Organo horien eginkizun dira 22/1988 Foru Arauaren 5. artikulutik 7. artikulura bitartean ezarritakoak, erakunde horren antolamendu, araubide eta funtzionamendu arautegiaren arabera, zeina urriaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren 1701/1988 Foru Dekretuz onartu baitzen, egun indarrean dagoen idazkeran, edo foru aldundiak horretarako ezarri ahal duena.

5. artikulua. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren eginkizun orokorrak

5.1 Foru diputatua da sail hau eta hierarkiaren arabera beraren menpean dauden gainerrako organoak (dekretu honetan ezarritako moduan) zuzentzen eta ordezkatzten dituen organo gorena.

5.2 Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan ezarritako eskumen orokorrak eta foru dekretu honetako 1. artikuluan ezarritako eskumen bereziak erabiltzea.

6. artikulua. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren eginkizun orokorrak

Saileko zuzendaritza organoa denez gero, Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzaren eginkizun generikoak dira Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoak.

7. artikulua. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritzaren eginkizunak

Abuztuaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 473/2015 Erabakiaren bitartez, Gazteriaren Foru Erakundearen kudeatzailetzaren zuzendaritza Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol zuzendariari esleitzen zaio.

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendariari dagokio foru erakunde autonomo hori sortzen duen ekainaren 20ko 22/1988 Foru Arauan eta Gazteriaren Foru Erakundearen antolamendu, araubide eta funtzionamendu arautegia ezartzen duen urriaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren 1701/1988 Foru Dekretuan xedatutako eginkizunak betetzea.

8. artikulua. Administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak

1. Hauek dira administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak:

- a) Administrazio unitatearen erantzukizuna izanik, hari dagozkien gaiak bideratu eta kudeatzea, bere eskumenen arloko ebazpen proposamenak eginez.
- b) Zuzendariari eta foru diputatuari, bidezkoa denean, administrazio unitatearen eskumenen esparruko xedapen eta ebazpenak proposatzea.
- c) Zuzendariari eta foru diputatuari aholkularitza teknikoa ematea.
- d) Administrazio unitatearen barne jarduerako araubidea ezartzea.
- e) Administrazio unitateek egin beharreko programen aurrekontuak proposatzea eta kudeatzea, ondo gauzatze diren kontrolatzea eta haien jarraipenaren ardura hartzea.
- f) Azterlanak eta txostenak prestatzea eta zuzendariari aurkeztea.
- g) Administrazio unitatearen eskumeneko gaietako administrazio espedienteak hastea, bideratzea eta ebazpenak proposatzea.

h) Nagusiek agintzen dizkieten gainerako lan guztiak, administrazio unitatearen eskumen esparruaren barruan.

II Kapitulumua

Euskara, kultura eta kirol zuzendaritzaren eskumenak

9. artikulua. Kontratazio mahaia

Euskara, Kultura eta Kirol Sailean kontratazio mahai iraunkor bat eratzen da, sail honek bere eskumen eremuaren barruan prozedura irekiaren nahiz murriztuaren bidez egiten dituen kontratu guztietarako.

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

Presidentea: Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

Idazkaria: Euskara, Kirol eta Kultura Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Kideak: Kontratazioa proposatzen duen zerbitzuko bi funtzionario.

Mahaiaren lege aholkularitza ari den administrazio unitateak izendatutako mahaikide bat eta kontuhartzaitza lanetan ari den administrazio unitateak izendatutako beste bat.

10. artikulua. Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza

1. Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzaren eskumenak dira euskara, kultura eta kirolaren arloetako politikak kudeatzea, atxikitako administrazio unitateak zuzentzea, eta arlo hauetako eginkizunak:

- Euskara politikak
- Agiritegi eta liburutegiak
- Museoak.
- Zaharberritzeak.
- Kultura Etxea
- Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena
- Argitalpenak
- Historia, arte eta arkitektura ondarea
- Kirola

11. artikulua. Euskararen Foru Zerbitzua

Euskararen Foru Zerbitzuak honako eginkizun hauek dauzka:

a) Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari proposatzea Arabako Lurralde Historikoan euskararen normalizaziorako eta sustapenerako aplikatu beharreko neurriak.

b) Udalekin eta toki erakundeekin lankidetzan aritzea euskararen sustapen eta erabilera programak egitean.

c) Arabako Lurralde Historikoan euskara sustatzen dituzten jarduerak garatzen lankidetzan aritzea.

d) Kulturaren arloko elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzea Arabako Lurralde Historikoan euskara sustatzeko jarduerak egiteko.

e) Gizartearen hainbat eremutan euskara ezartzeko edo biziberritzeko ekimenak eragitea edota horietan laguntzea.

12. artikulua. Agiritegi Zerbitzua

Agiritegi Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Arabako Lurralde Historikoko Agiritegiaren kudeaketa zuzentzea.
- b) Ondare dokumental eta bibliografikoa zaintzea, artatzea eta zabaltzea,
- c) Ondarea zabaltzeko behar diren informazio dokumental eta bibliografikorako tresnak prestatzea.
- d) Ikerketa historikoa sustatzea eta horretarako aholku ematea.
- e) Jarduera didaktiko-kulturalak programatzea: erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak, etab.
- f) Ondare dokumentala edota bibliografikoa eskuratzeko, dohaintzeko edo gordailatzeko irizpideak proposatzea.

13. artikulua. Museo eta Arkeologia Zerbitzua

Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Aldundiaren museoetan dauden ondare funtsak artatzea, mantentzea eta zaintzea.
- b) Museoetarako funts berriak erosteko politika proposatzea.
- c) Museoetako funtsen inguruko ikerketa sustatzea.
- d) Museoetako funtsak ezagutaraztea erakusketa, agerkari, lantegi eta antzeko jardueren bitartez.
- e) Jarduera eta programa didaktikoak prestatzea eta sustatzea.
- f) Arabako Lurralde Historikoko ondare arkeologikoaren mantenimendua eta kontrola kudeatzea.
- g) Berez edo Euskal Kultura Ondarearen Legea aplikatuta edo Foru Aldundiaren berezko jardueren ondorioz Arabako Foru Aldundiari dagozkion esku hartze arkeologiko guztiak egitea.
- h) Eremu arkeologikoetan (hirigune historikoetan nahiz hiriz kanpoko guneeetan) eraikitzeko eta obrak egiteko baimenei buruzko txostenak egitea.
- i) Eusko Jaurlaritzari proposatzea has ditzala kultur ondasun higigarriak kalifikatzeko edo inbentarioan sartzeko espedienteak.
- j) Arabako Lurralde Historikoko ondare higigarriari buruzko informazioa eta aholkua ematea.

14. artikulua. Zaharberrikuntza Zerbitzua

Zaharberrikuntza Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Arabako Lurralde Historikoko ondare higigarria zaharberritzeko politika proposatzea.
- b) Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako ondare higigarriaren zaharberrikuntzaz ematen dituen gidalerroak betearaztea.
- c) Arabako Lurralde Historikoko elementu higigarriak, arkeologikoak, dokumentalak, paleontologikoak eta etnografikoak zaharberritzea eta mantentzea
- d) Arabako Lurralde Historikoko ondare higigarriari buruzko informazioa eta aholkua ematea.

15. artikulua. Kultura Etxeko Zerbitzua

Kultura Etxeko Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Ignacio Aldecoa Kultura Etxeko liburutegiko arloak zuzentzea eta kudeatzea.

b) Ondare bibliografikoari eta hemerografikoari buruzko txosten teknikoak egitea, eguneratzea eta gordetzea.

c) Material bibliografiko, grafiko eta ikus-entzunezkoen bilduma orekatua batzea, antolatzea eta jendaurrean jartzea, eta funts horien erabilera sustatzea.

d) Arabako Foru Aldundiaren agerkariak Arabako Lurralde Historikoko gainerako liburutegi publikoetara eta Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi garrantzitsuenetara bidaltzea.

e) Hirugarren adinekoen elkartegietako jarduerak koordinatzea.

16. artikulua. Kultura Ekintza Zerbitzua

Kultura Ekintza Zerbitzuak, zeinen xede nagusia den kultura jarduera sustatzea, eginkizun hauek dauzka:

a) Lurraldearentzat interesekoak diren kultura erakundeen eta pertsonen arte sorkuntza eta kultura hedapena eta jarduera bultzatzea eta sustatzea.

b) Kulturaren Plan Estrategikoaren prozesua diseinatzea eta lanketa koordinatzea.

c) Kultura premiak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, kultura eta arte jarduerak bultzatu, indartu eta garatze aldera.

d) Beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten kultura politikako eta kudeaketako neurriak aztertzea eta konparatzea.

e) Programatutako kultura jarduerak ezarri eta ebaluatzea.

f) Kultura ekintza eta hedapena sustatzeko laguntzak eta deialdiak programatu eta ebaluatzea.

g) Udalerriei eta kultura erakundeei aholku ematea kultur programazioari, kultur azpiegiturei eta kultur programei buruz.

h) Arabako sortzaile eta artisten ezagutzan eta balorazioan laguntzea eta erraztea.

i) Aldundiaren argitalpenak sustatzea, katalogazio, banaketa eta hedapenerako formula berriak aprobetxatuz.

j) Erakunde publiko eta pribatuekiko akordioak proposatzea, kulturaren sustapena eta hedapena erdiesteko.

k) Erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzan aritzea kulturaren arloan, bai estatuan bai nazioartean.

l) Indarrean diren xedapenen bidez esleitzen zaizkion beste guztiak, bai eta helburuak behar bezala betetzeko agintzen zaizkionak ere.

17. artikulua. Kultura Azpiegitura Atala

Kultura Ekintza Zerbitzuari atxikita dagoen Kultura Azpiegitura Atalak eginkizun hauek dauzka:

a) Arabako udalerrietan kultur garapena sustatzen laguntzea.

b) Arte arloko jarduerak bultzatzea eta, besteak beste, arte eszenikoen eta musikaren ikerketa eta hobekuntza sustatzea.

c) Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eta beste erakunde batzuek sinatzen dituzten hitzarmenen jarraipena egitea.

d) Kultura elkartegintzarekin lankidetzan aritzea eta erakunde arteko ekimenak laguntzea.

e) Herriko jai, urteurren eta ekitaldien kariatzako kultur programak gauzatzea.

- f) Programatutako argitalpen plana kudeatzea.
- g) Helburuak behar bezala betetzeko agintzen zaizkion beste guztiak.

18. artikulua. Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua

Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Arabako kultur ondasun higiezinaren egoera eta erabilera aztertzea eta jakinaraztea.
- b) Arabako kultur ondasun higiezinaren esku hartzeko proposamenak egitea.
- c) Foru Aldundiak kultur ondasun higiezinak zaharberritzeko edo birgaitzeko abiarazten dituen proiektuen eta obren gaineko txostenak egitea eta ikuskatzea.
- d) Euskara, Kultura eta Kirol Sailak beste arkitekto batzuei kontratatutako zerbitzuen arkitektura proiektuak idaztea, obren zuzendaritzaz arduratzea eta obrak jaso arte ikuskatzea eta jarraipena egitea.
- e) Kultur ondasun higiezinak kalifikatzeko edo inbentarioan sartzeko prozeduretan Foru Aldundiak eman beharreko txostenak idaztea.
- f) Euskal kultur ondarearen Legearen arabera Foru Aldundiaren aurreko baimena behar duten proiektu publiko eta pribatuak aztertzea eta ikuskatzea.
- g) Multzo historikoa duten udalek birgaikuntzako plan berezien edo antzekoen itzalpean egiten dituzten administrazio egintzak ikuskatzea.
- h) Hirigintzako planak onartu aurreko txosten kontsultiboak egitea, bai eta ingurumen eragina dela-eta ezarritakoak ere.

19. artikulua. Kirol Zerbitzua

Kirol Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Eskola Kiroleko programak bultzatzea ikastetxeekin, klubekin, kirol taldeekin, Arabako kirol federazioekin eta gainerako kirol agente guztiekin lankidetzan.
- b) Bertako kirolak sustatzea.
- c) Jolas Kiroleko programak bultzatzea, oro har irabazteko xederik gabeko talde eta elkarrekin lankidetzan, bereziki kirol arloko talde eta elkarrekin.
- d) Kirol federatuko programak gara daitezen sustatzea Arabako Kirol Federazioen bitartez.
- e) Kirol federatuaren garapena sustatzea kirol klub, talde eta elkarrekin lankidetzan, arreta berezia emanez emakumeen, kadeteen eta gazteen kirolari, desgaitasunen bat dutenentzako kirola garatzen duten kolektiboekin, eta haietako guztietako teknikariak prestatu eta egunean edukitzeari.
- f) Araban kirola sustatzea eta garatzea, arreta berezia jarrita errendimendu handiko kirol ez profesionalari, "Álava Vive Deporte-ALVIDE" Fundazioaren bidez.
- g) Eskola eta jolas kiroleko programen garapena sustatzea Arabako toki erakundearen bidez.
- h) Indarreko legeriaren arabera sailak kirolaren arloan dauzkan eskumenak gauzatzeko behar diren ekintza guztiak gauzatzeko.

20. artikulua. Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Sailarekin lankidetzan aritzea aurrekontuaren aurreproiektua prestatzen, eta gero aurrekontuaren jarraipena egitea.

b) Sailaren ebazpenak eta kontabilitate dokumentuak egitea eta, oro har, haien izapidetze ekonomiko eta administratiboa bideratzea, eta unitateei aurrekontua betetzearen inguruan aholku ematea.

c) Sailaren unitateei lege aholkua ematea.

d) Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Giza Baliabideen Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea, eta horrekin batera zehaztea plantilla, lanpostuen zerrenda, hautapen prozesuak eta, oro har, saileko langileei dagozkien alderdi guztiak.

e) Saileko informazio sistemak diseinatzea eta ezartzea, eta haien jarraipena egitea, bai eta sailaren urteko memoria idaztea ere.

f) Sailak lanerako, artxiborako eta dokumentaziorako dituen metodo administratiboak arrazionalizatu, sinplifikatu eta normalizatzeko azterlanak eta txostenak egitea, Antolaketa Zerbitzuarekin koordinatuta.

g) Sailaren funts dokumentalaren bibliografia, agerkariak, xedapen juridikoak, artikuluak eta informazioa antolatu eta kudeatzea.

h) Sailaren jarduerak dakartzan kontratazio espedienteak eta hitzarmenak kudeatzea eta izapidetzea, eta haien jarraipena eta kontrola egitea. Halaber, ebazpenen berri ematea nola saileko zerbitzuei hala horietan interesatuta dauden partikularrei.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Zuzendarien lanpostuak hutsik daudenean, edo haiek kanpoan edo gaixorik daudenean eta haien abstentzio edo errefusatze kasuetan zuzendariak ordeztuko araubidea Diputatuen Kontseiluaren irailaren 22ko 54/2015 Foru Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio.

Bigarrena. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 18.3. puntuan aurreikusitakoa betez, xedapen honetan ezarritako egitura organikoak lanpostuen zerrendan dakartzan aldaketak dokumentu batean jasoaraziko ditu funtzio publikoaren arloan eskumena duen erakundeak, zeinak lanpostu zerrenden unean uneko egoerari buruz aldizka eguneratutako informazioa eramango baitu.

Xedapen indargabetzailea

Foru dekretu hau indarrean sartzan denean, indarrrik gabe geratuko dira honako arau hauek guztiak: Diputatuen Kontseiluaren 65/2012 Foru Dekretua, azaroaren 8koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, eta Diputatuen Kontseiluaren 17/2014 Foru Dekretua, 65/2012 Foru Dekretua aldatzen duena, eta, bereziki, Foru Dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen xedapen eta ebazpen guztiak.

Azken xedapena

Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

